Osakidetza

ARABAKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
ARABA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZENTROETARA JOATEKO GOMENDIO OROKORRAK



**Osasun-zentrora joan behar baduzu, eskatu telefono bidezko hitzordua. Medikuntzako edo erizaintzako zure erreferentziako profesionalak zurekin harremanetan jarriko dira.**



**Bakarrik joan ezin baduzu, laguntzaile bakarra eraman, Covid sintomarik ez duena. Laguntzaile horrek zentroaren kanpoaldean itxarongo du, baldin eta zure egoerak ez badu eskatzen hura kontsultan zurekin batera egotea.**

## OHAR HAUEK PAZIENTEARENTZAT ETA LAGUNTZAILEARENTZAT DIRA



**Eskuen higienea egin, bai osasun-zentrora iristean, bai handik irtetean, bai eta gainazal komunak ukitu ondoren ere. Eskularruak jantzita badituzu, kendu, eta eskuen higienea egin.**



**Maskara ondo jarrita eraman, sudurra eta ahoa une oro estaliz:**

- **Maskarak balbularik gabekoa izan behar du**
- **Maskara ezin dute erabili 6 urtetik beherako haurrek, arnasa hartzeko arazoak dituztenek, konorterik gabe edo ezgaituta daudenek edo maskara laguntzarik gabe kendu ezin dutenek**
- **Ez ukitu aurpegia eta maskara**



**Osasun-zentrora segurtasunez joateko: etxetik maskararekin atera, eskuen higienea egin eta segurtasun-tartea gorde.**




**Gainerako pertsonekiko 2 metroko distantzia gorde une oro.**



**Ez agurtu elkar ukituz.**



**Ezarritako orduan joan.**




**Igogailuen erabilera mugatzeko arauak errespetatu.**



**Debekatuta dago zentroko instalazioetan paseatzea.**

Iturria: Donostialdeko ESI